

XaguArtea

2010eko otsailaren 22a

Xagun aldizkaria

50. alea

Inauteriak ospatu dituzte eskolako haurrek



Tolosan, Altsasun eta Lantzen ez-ezik, Zerainen ere ospatu dituzte inauteriak. Herriko txikienak izan ziren protagonistak herriko mozorro-jaietan. Astelehena inauteri egunean, era guztietako mozorroak jantzi eta plazan jolasean, dantzan eta kantuan aritu ziren eskolako haurrak, guraso eta irakasleekin batera. Ikasle asko gaixo zeudela eta atzeratutako antzerkia, otsailaren 24an, asteazkena, egingo dute arratsaldeko 5etan, herriko plazan. Denok gonbidatuta zaudete!

Joxe Mari Telleriaren lanen erakusketa dago Gasteizen

Gasteizko *ikusiar* arte-lekuan Joxe Mari Telleria herriko artistaren lanen erakusketa ikusgai dago. Besteak beste XaguArtearen mantxeta ere diseinatu zuen lagun musikari eta margolariak bere ibilbidean zehar egindako hainbat artelan jarri ditu Gasteizko erakusketan.

Otsailaren 12tik martxoaren 4ra arte egongo dira obra horiek ikusgai Gasteizko Korreria kaleko 8. zenbakian dagoen *ikusiar* kulturunean. Erakustokia arratsaldeko 6:30etatik 9etara egongo da irekita asteartetik larunbatera; eta larunbatetan, iluntzean ez-ezik, eguerdiko 12etatik 2etara ere atek irekita edukiko ditu *ikusiar* tek. Zorionak Joxe Mari!

1.656 € bildu dira Santa Ageda bezperan Haitiren alde

Usadioari jarraituz, aurten ere Santa Ageda bezperan kopla kantuan eta eskean ibili zen herriko talde bat. Arratsaldeko 4etan abiatuta, Barbari auzoa ez beste herriko etxe guztiak pasa zituzten. Batzuk geroago joan ziren taldera biltzen, eta iluntzerako koadrila ederra juntatu zen. Festa Ostaturako mahai-bueltan bukatu zuten kantari ibili zirenek. Urtero, ohitura berritzeaz gain, Santa Ageda bezperan biltzen den dirua beharrean daudenei laguntzeko erabiltzen da. Aurten bildutako 1656,41 euroak Haitiren alde erabiliko dira.



Banatu dira tuteko eta museko aurtengo txapelak



Julian Imaz, Luis Aranburu, Iñaki Berasategi eta Pedro Ariztimuño tuteko txapel eta sariekin.

Liztormendiko aurtengo tute txapelketa otsailaren hasieran, hilaren 6an, jokatu zen. Hamabost bikotek parte hartu zuten jokoan eta denen artean garaile Iñaki Berasategi *Kozmendi* herritarra eta Luis Aranburu mutiloarra izan ziren. Finalean bi segurarri, Julian Imazi eta Pedro Ariztimuñori, irabazi zieten. Ondorioz, aurtengo tute txapelketako bi txapeletako bat herrian geratu da eta bestea Mutiloara joan da. Iazko garaileek, berriz, lehiaketa polita egin zuten; Maribel eta Belen herritarrek finalerdietan galdu baitzuten.



Fermin Mantecon, Jon Arakama, Urko Garaiar eta Juan Luis Izagirre museko txapel eta sariekin.

Mus txapelketa otsailaren 20an, larunbata, jokatu zen Liztormendi elkartearen. Tutera baino jende gehiago animatu zen museko karta-jokora; guztira 20 bikote. Horien artean, asko ziren zegamarrak, eta beraz, ez da harrizkoa txapelak ere hara joan izana. Jon Arakama eta Urko Garaiar gazteek finalean mendean hartu zituzten Fermin Mantecon segurarra eta Juan Luis Izagirre zegamarra. Aipatzekoa da Jon Arakamak hirutan parte hartu duela Liztormendiko mus txapelketan eta bitan txapela jantzi-ta bueltatu dela etxera.

Biztanleria zertxobait hazi da azken urtean



Zeraingo zetsoaren datuek diotenez, 2010 urte hasieran 249 biztanle gaude Zeraingo Udalean erroldatuta. Aurreko urtean 10 alta izan ziren, hauetatik 2 jaiotza; bajak berriz, 7 izan ziren. Aipagarria da 2009an heriotzarik ez zela izan.

Endika Alustizaren omeneko XVII. bola txapelketa

Untsulategiko Endika Alustiza zenaren omenez urtero jokatzen den bola txapelketaren XVII. memoriale otsailaren 28an, igandea, jokatuko da. Goizean 10etatik 11:30etara, eta arratsaldean 4:30etatik 5:30etara izena emanda, inguruko bolari onenak Liztormendi bolatokian arituko dira. Lehen zortzi sailkatuentzat sari bikainak egongo dira.

Txapelketa Liztormendi Elkarteak, Udalak eta Kultur Elkarteak antolatzen dute, herriko zerbitzuen, Joxe Telleria aseguruaren eta Segurako bolarien laguntzarekin.

Antosiñe, antunsiñe, antuxune

Esateko modu asko ditu hitz honek. Beste hauek ere bai: *antoxin*, *antixon*, *antuxin*, *antixun* eta abar. Gipuzkoan eta Bizkaian erabili izan da hitza, batez ere. Gipuzkoan ez nonahi: batez ere Goierriin, Tolosan eta Azpeiti aldean. Hor eta, akaso, Deba ibarrean. Bizkaiko zenbait lekutan ere ezaguna da, esan bezala. Goierriko aipamen hau kontuan hartzekoa da: "una medida de hoja de lata que (en) Fuenterrabia llaman potoa; en Cegama *antixune*". *Pitxarra* ere esan izan zaio, zenbait lekutan.

Galdetu egin diet atzo ilunabarrean, tabernako barran, baxoerdi bana hartuz bertan zeuden edade batekoei: 55 urtetik 65era bitartekoei. Ba al dakizue *antosiña* zer den? Bai horixe. Guztiek dakite zer den edo, hobeto esateko, zer zen. Gazterik (30 urte bueltakorik) ez zegoen inguruan, eta galdetu gabe gelditu naiz. Galtzen ari da hitza, Elenaren esanean. Bistan da zergatik: lehengo aldean *antosiñ* gutxi dago orain etxeetan. Edateko orduan (gosaritan ez bada) kristalezko basoa nagusitu zaio potuari. Gosaritan, berriz, katilua. Etxeatatik dasagertuz joan da antosiña, eta produktua desagertzearekin batera hitza ere gainbehera hasi da. Betikoa. Eguneroko bizimodu normalak, ez gure burujardun sofistikuak edo gogoeta-lan saiatuak, erabakitzen du sarri hiztun arrunton hitz-altxorrean zer hitzek indarrean dirauen eta zer hitz galduz doan: ia oharkabean atzenduz eta baztertuz, eta azkenean zeharo galduz. Arau horretan sartzen da, oro har, *antosiña*.

Zer zen *antosiña*, zeraindarren artean? Kontua argi definitu du Elenak: "kirtena duen edalontzia; baserrietan eskueran izaten zen, bozadera edo iturri ondoan, ur freskoa edateko". Horrelatsu dio OEH hiztegiak ere: "acetre, vasija pequeña para agua. Cazo para beber agua de la herrada. Vaso con un asa que se empleaba para beber o llenar otros



recipientes". Bestelako adierarik ere izan du, hor nonbait. Bizkaiko Otxandion, esate baterako, hona *antosiña* zer zen: "plato de hierro para tener clavos ardientes". Uste izatekoa da, garai bateko burdinoletan izango zirela horrelako antosiñak. Lehengo kontuak: gaur egun norik lan egiten du, izan ere, iltze goriekint?.

Bozadera edo iturri ondoan ez ezik, sukalde inguruan ere hurbil izango zen *antosiña*. Elenak gogorazten digunez "etxeetan, sukaldean iturriarik ez zenean, baldeetan edo bestelako ontzietan zegoen ura hartzeko ere erabiltzen zen *antosiñe*: lapioari ura gehitzeko, eskuak gabitze-ko eta abar". Horrelako adibiderik ere ez da falta OEHn: "suilla edo iturritik ura artu ta edateko ontzitzoa". Ura edateko bakarrik ez zuen balioko, jakina: egarria sagardoz edo ardoz berdindu nahi zuenarentzat ere ez zen *antosiña* tresna okerra izango. Hiztegitik jaso dugu azpeitiar baten esaera hau: "barrika ondoan jarri zan antuxune batekin, da eguardira arteko denbora antxe pasatu (zuen)".

Zer materialez egiten ziren *antosiñak*? Elenaren esanean "batzuk hojalatazkoak, beste batzuk portzelanazkoak; portzelana zuria izaten zuten horiek, eta ertza urdin kolorekoa". Bat dator hiztegia, funtsean, definizio horrekin.

Azken datua gogorazi digu

Elenak. Gaur egun, mendizaleak egarriak jota daudenerako, hainbat iturri bere antosiña dauka. Baietz esan dezakegu, dudarik gabe, inguruotan mendian ibili ohi garenok. Oamendiko harrobi-iturrian, urrutirago gabe, hantxe dago *antosiña* egarriak gaudenerako. Baita Aralarren ere, oker ez banabil. Iturrian dagoenari, gainera, mendizale askok bizkarean (motxilan edo motxilatik zintzilik) eraman ohi duena erantsi behar zaio. Uste baino ohitura zaharragoa izango da, itxuraz, ibiltariak antoxina berekin izate hori. Pelegrinek ere izaten zuten berea, esku-makilaz gainera. Honela zioen Manzisidor azkoi-tiarrak, 1956ko bere liburuan, San Inazioz ari zelarik antza: "erosi zituen (..) eskurako pegriñoen makilla bat, eta ura erateko kalabatatxo edo antoxina".

Alde batera utzi dugu *antosiña*. Pototik, basotik, kopatik, tazatik edo (enbase berrien kasuan) potetik bere-tik edaten dugu orain, Zerainen eta nonahi. Lehen bezain gustura edaten dugu: horretan gauzak ez dira asko aldatu. Gehien-gehienoi gustatzen zaigu edatea, eta ahal bada onetik. *Antosiña* joan da, baina mama gozoaren tiraioa ez. Neurriari eutsiz gero, ez da hain ohitura txarra. Neurri kontu horrek ematen digu lan.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

URTARRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2	3
Euria (l/m)	GUZTIRA: 234,5l.				1	0,75	6
C° altuena	ALTUENA: 17°				12	10	10
C° baxuena	BAXUENA: -4°				6	2	3
	4	5	6	7	8	9	10
Euria (l/m)	0	7	0,5	5	20	15,5	2
C° altuena	11	7	9	2	2	2	6
C° baxuena	4	5	2	-1	-2	-2,5	-4
	11	12	13	14	15	16	17
Euria (l/m)	0	7	2	45	1,5	3	5
C° altuena	7	6	10	9	13	15	12
C° baxuena	-3	-3	-2	7	5	7	7
	18	19	20	21	22	23	24
Euria (l/m)	0	4	2	0	0	4	11
C° altuena	13	17	13	10	15	10	10
C° baxuena	6	7	7	2	2	7	9
	25	26	27	28	29	30	31
Euria (l/m)	6	0,25	0,5	3,5	24	48	10
C° altuena	8	7	6	7	11	6	6
C° baxuena	3	-3	-1	-1	1	3	2

Urtarrila, hilabete hotza eta bustia

Hilabete honi dagokion bezala, (zerbaitengatik esaten zaio *Ilbeltza*) hotza eta bustia izan dugu: elurte handi samar bat, izotz ugari eta 26 egunetan euria. Guztira 234,5 litro bildu dira. Temperatura hotzenak zeropetik 4 gradura jaitsi dira eta epelena 15 gradura igo da. Bistakoa denez, ez gaitu ez eguzkiak asko berotu!



Finalaren atarian geratu da Xabi Urrezko Aizkorako zilarrezko txapelketan



Lehen aldiz parte hartu du Xabier Dorronsoro aguazilak Urrezko Aizkora lehiaketan. Irazabal bizkaitarra lagun zuela aritu da Zilarrezko txapelketan. Finalaren atarian, Elgoibargo finalurrekoan, kaleratu zituzten Mugertza anaiek. Xabierren lehen saioa Zerainen bertan izan zen. Izan ere, aizkolarietako bat herritarra zela aprobetxatuta antolakuntzak gure herrian jarri zuen

proba bat. Askorentzat ustekabeen, aurrera egin zuten Dorronsorok eta Irazabalek Zerainen. Hurrengo kanporaketa Legution izan zuten eta han ere aurrera egin zuten. Hirugarren lehiaketa Asteasun jokatu zuten. Azkenik, maiatzaren 21ean, Elgoibarren agur esan zioten txapelketari finalaren atarian. Oso paper ona egin du Xabierrek txapelketa honetan. Zorionak eta segi horrela!

Zerralango asanblea otsailaren 27an

Baserritarrek dituzten zerra lanak egiteko duela 12 urte sortu zen Zerralan elkarteak ezohiko bilera deialdia egin die bazkide guztiei. Otsailaren 27an, larunbata, goizeko 11etan izango da asanblea Zerralaneke Zerainen duen zerrategian.

KZguneko ordutegiak

Martxoan goizez egongo da KZguneko arduraduna. Hilaren 4ane ta 18an etorriko da goizeko 9etatik 13etara.

Martxoan hasiko da Yoga ikastariora

Yoga ikastaroan parte hartzeko 9 herritarrek eman dute izena. Martxoaren 3tik aurrera, asteazkene-ro, ordubeteko Yoga saioak egingo dituzte. Iluntzeko 7:45etik 8:45era izango dira saio horiek.